



## DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA 2016-2018 URTEAK

### 1. SARRERA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren zioen azalpenean, oro har, eta zehazki, 8. artikuluan, Administrazio Publikoetako organoen betebeharrak bat zehazten da; hain zuzen ere, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko betebeharrak, eta plan horretan honako datu hauek finkatu behar dira: plana aplikatuta lortu nahi diren helburu eta ondorioak, horiek betetzeko behar izango den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantza-iturriak, betiere publikotasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuta. Halaber, baliabide publikoak esleitu eta baliatzearen efizientzia eta finkatutako helburuen eraginkortasuna ere zehaztu behar dira.

Era berean, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 8. artikulua hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartutako Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendu bidez garatu da, eta Lege Orokorraren azken xedapenetako bigarrenaren eta Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan xedatutakoaren arabera, oinarrikotzat hartzen da, aipatutako xedapen horietan zerrendatu diren aginduak izan ezik.

Estatuko araudi hori Euskal Autonomia Erkidegoaren jardun-eremuan aplikatzeari buruz luze eztabaidatu da, baina Herri Administrazio eta Justizia Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak berriki egindako txosten baten kontsiderazio juridikoen arabera:

"17. Bestalde, EAeko Auzitegi Nagusiak ez du ukatzen 38/2003 Legea Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu behar denik, baina Lege horren 8.1 artikuluan aipatzen den "diru-laguntzen plan estrategikoa" ezinbesteko baldintzat jotzen du EAeko udalerrietako diru-laguntzen deialdiak baliozkoak izan daitezkeen..."

...Alabaina, Auzitegi Gorenak Auzitegi Nagusiaren epaiekin bat datozen hainbat epai eman ditu (besteak beste, 2012ko ekainaren 26ko eta abenduaren 4ko epaiak, eta 2013ko urtarrilaren 28ko eta apirilaren 16ko epaiak); epai horien arabera, 38/2003 Legearen 8.1 artikuluari dagokionez honako irizpide hau finkatu du: *"Agindu horretatik, dialektikoki ahalegin handirik egin gabe, bi ondorio hauek atera daitezke: Plan Estrategikoa edozein diru-laguntza ezarri aurrekoa da; eta agindua nahitaez betetzekoa eta kategorikoa da. Aginduan Plan Estrategikoa alde aurretik eskatzekoa dela xedatzen da eta, gure ustez, aginduaren idazteko modua ez da tangentiala eta ez-sistematikoa –instantziako epaiak dioen moduan–, baizik eta diru-laguntza arautu aurreko funtsezko betekizuna; hortaz, bai da beharrezkoa kanpotik formalizatzea edo instrumentalizatzea, baina formaltasun jakin bat eskatu*

*ezin bada ere, identifikatzeko moduko definizio bat agertzea eskatu ahal izango da.*" Auzitegi Nagusiak jurisprudentzia hori aplikatu izan du, jada, geroagoko epaietan: besteak beste, 2012ko azaroaren 6ko epaian, eta 2014ko otsailaren 18ko, urriaren 29ko eta abenduaren 19ko epaietan). Baina EAEko udalek egindako diru-laguntzen deialdiak dira, eta beraz, ez dira sartzen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 48. artikulua eta hurrengoan aplikazio-eremuan. Epai horietan Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioari buruz esaten denaren arabera, 38/2003 Legea EAEko Toki Administrazioari aplikatu beharrekoa da.

18. EAEko Auzitegi Nagusiak Autonomia Erkidegoko administrazioaren diru-laguntzen deialdien aurka aurkeztutako errekursoak ebazteko ere aplikatu izan du 38/2003 Legea (besteak beste, Auzitegi Nagusiaren 2009ko irailaren 16ko epaia – Auzitegi Gorenaren 2013ko abenduaren 23ko epaiaren bidez berretsita– eta 2014ko irailaren 16ko eta azaroaren 10eko epaiak); baina Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 48. artikulua eta hurrengoetan bildutako autonomia-erkidegoko araudia ere aplikatzen du, bata edo bestea lehenetsuz aplikatzeari buruzko inolako aipamenik egin gabe. 2013an goimailako kirol-lehiaketako antolatzeke diru-laguntzetarako deia egiteko eta deialdi hori arautzeko den Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 31ko Aginduaren aurka Estatuko abokatuak aurkeztutako errekursoak eragin du liskarra. EAEko Auzitegi Nagusiaren 2015eko urtarrilaren 21eko epaian Auzitegi Gorenak lehen aipatutako epaietan finkatutako doktrina (gogora dezagun, EAEko udalerriek egindako diru-laguntzen deialdiei buruzkoa) biltzen da, 38/2003 Legearen 8.1 artikulua nahitaez aplikatzeari dagokionez; eta honako hau gehitzen da: "Auzitegi Gorenaren baieztapenak irmoak diren arren, 38/2003 Legearen Hogeita bigarren Xedapen Gehigarriaren edukia ez da eragozten... zeren... arauak ez baitu Euskal Autonomia Erkidegoa bere aplikazio-eremutik at uzten; aitzitik, arauaren aplikazioa berresten du eta aplikatzeko garaian Autonomia Estatutuaren eta Lurralde Historikoetako Estatutuen ondoriozko berezitasunak<sup>1</sup> –antolaketarekin eta eskumenekin lotutakoak– errespetatu behar dira. Gai horri dagokionez, Sala honek ez daki EAEko autonomiaren zein alderdi kaltetu den, zer alderdi ez den errespetatu, diru-laguntza ezarri aurretik plan estrategikoa egiteko betebeharra ezarri denean, eta zaila izango da horretaz jabetzea demandatuak berak onartzen du-eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan –Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bategina onartzen duena– jasotzen diren printzipioak argudiatutako Estatuko arauan xedatutakoarekin erabat pareka daitezkeela". Argudio horretan oinarrituta, inpugnatutako Agindua baliogabetzen du ordenamendu juridikoarekin bat ez datorrelako, diru-laguntza onartu aurretik Plan Estrategikorik ez izateagatik."

Besteak beste, aurreko kontsiderazio juridikoak aintzat hartuta, txostenaren ondorioen arabera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra Autonomia Erkidego honetan zuzenean aplikatu behar da; izan ere, "Estatuko oinarrizko araudia (38/2003 Legearen azken xedapenetako lehenengoan "Estatuko oinarrizko legedia" aipatzen da, eta ez du bereizten Estatuak dagozkion eskumen esklusiboak baliatzean ematen duenetik), diru-

*laguntzen arloan, EAEn zuzenean aplikatzekoa baita. Araudi horretako aginduren bat ez aplikatzea gertatuko balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-araubide berezia arautzen duen xedapenen batekin bateraezina dela argudiatu beharko litzateke, txosten honen gorputzean azaldutako baldintzen arabera.”*

Azaldutako guztiagatik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau egin du, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa kudeaketa-tresna programatikoa da, eta ez du arau-lerrunik. Horren ondorioz, ez du eskubiderik ezta betebeharririk ere eragiten onuradun potentzialentzat. Plana gauzatu ahal izateko, diru-laguntzen ildoak abiarazi beharko dira eta, besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuko diru-kopurua izango da baldintzatzaile.

Era berean, Plana sustatu duen Sailak egindako jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenen arabera, diru-laguntzen ildoren batek ez badu lortzen nahi adinako betetze-maila edo inbertitutako baliabideekin bat datorren maila helburuei dagokienez, ildo hori aldatu egin daiteke, edo beste ildo eraginkorrago eta efizienteago batekin ordeztu edo, hala badagokio, ezabatu ere egin ahal izango da.

## **2. EREMU SUBJEKTIBOA ETA DENBORA EREMUA**

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan aipatzen den eskumenari jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak kudeatzen dituen diru-laguntzak Plan Estrategiko honen barruan sartzen dira, besteak beste, Arte- eta kultura-mailako jarduerak eta horien zabalkundea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagokiola xedatzen baita.

Bestalde, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen zaio musika, antzerki, dantza, liburu eta ikus-entzunezko arloetan jarduteko planak edo programak proposatzeko eginkizuna, EAEko Administrazioaren eskumeneko plana edo programa baldin bada.

Denbora-eremuari dagokionez, Lege Orokorrearen Erregelamenduaren 11.4 artikuluari jarraiki, Plan Estrategikoak hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak bilduko ditu, baldin eta eraginpeko sektorearen berezitasunak berezitasun, beste aldi baterako plan estrategikoa ezartzea komeni ez bada. Ildo beretik eta egoera berezirik ez dagoenez, Plan Estrategikoa 2016-2018 aldian egongo da indarrean.

## **3. HELBURU OROKORRAK**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 27. artikuluan Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitutako funtzio eta jardun-arloak zehazten dira; besteak beste:

- Musika, antzerki, dantza, liburu, ikus-entzunezko eta ikusmen-artearen arloetako beharrianak aztertzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan arlo horietan gauzatzen diren jarduerak bultzatu, sendotu eta zabaltzeko egoki iritzitako administrazio-neurriak hartzea.
- Bereziki arlo horietan diharduten erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzeko formulak bilatzea, baita arlo horietako jardun publikoa planifikatzea ere.
- Arlo horietan kultura zaindu, sortu eta zabaltzeaz arduratzea, eta Euskadiko kultura-industriak garatzen lagundu eta bultzatzea.

Goian esandakoa aintzat hartuta, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egitearekin honako helburu orokor hauek bete nahi dira:

1. Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari politika publikoen plangintza egiteko tresna bat eskaintzea, politika horien xedea izanik Zuzendaritzaren eskumeneko gaiekin lotutako onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea.
2. Sortzaileei ematen zaien babesa optimizatzea; horretarako, euskal sorkuntza-sarea indartu eta sortzaileen masa kritikoa areagotzeko testuinguru egokia sortzea ahalbidetu behar da.
3. Gizartean errotuta daudelako, sektorearen barruan trakzio-jardueren sortzaile direlako eta nazioartean duten proiektioagatik, kulturaren ez ezik, merkataritzan, turismoan eta enpleguan ere eragina duten ekitaldi eta erakunde traktoreen mapa indartzea.
4. Kultura-industriak bultzatzea; horretarako, kultura-sektoreetan produkzioko, zabalkundeko eta profesionalizazioko proiektuen deialdiak garatu behar dira. Sektoreko profesionalen elkarteekin batera lan eginez gero, kultura-politikak partekatu ahal izango dira, baita publiko berriak sortu ere; hartara, gizarte osoak izango du kultura-produktuetarako sarbidea.
5. Ikuspegi ekonomiko-finantzariotik begiratuta, kudeaketa-tresna uniformeagoak zehaztea, diru-laguntzen eraginkortasuna eta efizientzia areagotu ahal izateko.
6. Informazio publikoa eskuragarri egoteko moduan jartzea, gardentasunaren eta gobernu onaren jardunbideen ikuspegitik begiratuta.

## **4. DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK**

### **4.1 Norgehiagoka-araubidean emandako diru-laguntzak**

#### **4.1.1. Musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak**

**- Helburuak:**

- Bertako musika-ekoizpena sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Euskal musikariak ezagutaraztea, merkatu berrietara irits daitezten eta beren sormen-jarduera finantzatzeko aukera gehiago izan ditzaten.

- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

- **Sektoreak:** Sozietate-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten edo Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden pertsona fisikoak edo juridiko-pribatuak, edo bestela, aurkezten den proiektuaren helburua Euskal Herriko artistak edo musikarien lanak ekoiztea edo zabaltzea izatea. Jarduera Ekonomikoen Zergako musika-jardueren epigrafe batean altan egotea eta, pertsona juridikoen kasuan, sozietatearen xedek zerikusia izatea musika-jardueren garapenarekin.

- **Epea:** urteko deialdia

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Kultura-industriak bultzatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzen deialdiak 475.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Administrazio Publikoetatik jasotako ekarpen ekonomikoen gehieneko guztizkoak ezin izango du gaintitu, inolaz ere, aurkeztutako proiektuaren kostuaren % 70.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

- **Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Deialdian zer laguntza modalitate aurreikusten diren (musika-partituren edizio inprimatuak, banakako musika-proiektuak, musika-ekimen enpresarialak eta musika-programazioa).

- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: proiektuaren interes orokorra, proiektuaren ardura duten taldeen ibilbidea, autofinantzaketa-maila, euskara erabiltzen ote den, emakumeek parte hartzen ote duten...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, emandako diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; eta bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Urtean zenbat musika-proiektu lagundu diren.

#### **4.1.2 Antzerkiko profesionalak prestatzeko programa eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak**

**- Helburuak:**

- Arte eszenikoetako profesionalak direnen edo izango direnen hasierako eta/edo etengabeko prestakuntza sustatzea.
- Antzerki-jarduera profesionalak sustatzea, antzerki-ekoizpenean biltzen diren prozesu guztietarako diru-laguntzak emanez.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globalean presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

**- Sektoreak:** Bizilekua edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoak edo juridiko-pribatuak, eta arte eszenikoen sektorean prestakuntza-proiektuak aurkezten dituztenak.

**- Epea:** urteko deialdia.

**- Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "euskal sorkuntza-sarea indartzea" helburua.

2016ko ekitaldirako, antzerkiko profesionalak prestatzeko programa eta jarduerak garatzeko diru-laguntzen deialdiak 88.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko,

aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Administrazio Publikoetatik jasotako ekarpen ekonomikoen gehieneko guztizkoak ezin izango du gaintitu, inolaz ere, aurkeztutako proiektuaren kostuaren % 70.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

#### **- Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuek (antzerkiko profesionalak prestatzeko programa eta jarduerak) zer baldintza bete behar dituzten.  
Goi-mailako hezkuntzako eremuetako edozein arlotan biltzen diren programa arautuak dituzten proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasoko, zentro publikoa nahiz pribatua izan.
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: irakasle taldearen lanbide-ibilbidea, eskaera aurkeztu duen erakundearen esperientzia, zentroak zenbateraino betetzen duen indarreko araudia, euskara erabiltzen ote den, bideragarritasun ekonomikoa...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: Bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, diru-laguntzaren ehuneko hirurogeita hamabost ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; eta bigarrenean gainerako ehuneko hogeita bosta, diru-laguntza justifikatu ostean.

#### **- Adierazleak:**

- Antzerkiaren arloan prestakuntza integraleko ikastaroetan parte hartu dutenen kopurua urtean.
- Antzerkiaren arloko ikastaro espezifikoetan parte hartu dutenen kopurua urtean.

### **4.1.3 EAEko antzokietako egoitza-proiektuetarako diru-laguntzak**

#### **- Helburuak:**

- Bertako antzerki-ekoizpena sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.

- Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzaz bultzatzea, arte eszenikoen sustapena ikuspegi global batetik begiratuta sustatzeko.
- Antzerki-jarduera profesionalak sustatzea, antzerki-ekoizpenean biltzen diren prozesu guztietarako diru-laguntzak emanez.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

- **Sektoreak:** Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak edo haien mendeko erakundeak, ekipamendu eszeniko baten titular badira.

- **Epea:** urteko deialdia

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Kultura-industriak bultzatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, EAEko antzokietako egoitza-proiektuetarako diru-laguntzen deialdiak 88.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Hautatutako proiektu bakoitzari gehienez ere 25.000 euro emango zaizkio.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

- **Oinarri arautzaileen oinarritzko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Zer baldintza bete behar diren (Programatzen diren ikuskizunetarako indarreko legediak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak betetzea, bai eta erantzukizun zibileko aseguru bat izatea ere; arte eszenikoen programazio egonkor profesionala eskaintzeko behar diren baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak edukitzea; konpainia



profesional bat izatea barnean, zeinarekin lankidetzeta-programa bat sinatu baita).

- Eskabideen izapidetze elektronikoa.
- Balioespen-irizpideak: Aurkeztutako proiektuaren garrantzia eta interesa, entitate eskatzaileak eta/edo konpainia egoiliarak aurreko urtealdietan egindako lankidetzeta-programak, aurkeztutako proiektuari entitate eskatzaileak egiten dion diru-ekarpena...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, emandako diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, zenbateko horri dagozkion gastuak justifikatu ostean; eta bigarrenean gainerako ehuneko berrogeita hamarra, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Antzerki-konpainiek antzoki publikoetarako egindako egoitza-proiektuen kopurua urtean.

**4.1.4 Aire zabaleko gune publikoetan euskal konpainiek egiten dituzten arte eszenikoaren ikuskizunen programetarako (teatroa, dantza eta zirkoa) diru-laguntzak (Kale Antzerkia Bultzatuz programa)**

**- Helburuak:**

- Herritar guztiek kultura eskura izan dezaten ahalbidetzea, gizarte-maila guztietan kultura-ohiturak bultzatuta.
- Bertako antzerki-ekoizpena sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Antzerki-jarduera profesionalak sustatzea, antzerki-ekoizpenean biltzen diren prozesu guztietarako diru-laguntzak emanez.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

**- Sektoreak:** Udalak edo haien udal-erakunde autonomoak, tokiko enpresa-entitate publikoak eta tokiko merkataritza-sozietateak, sozietatearen kapitala titulartasun publikokoa bada

**- Epea:** urteko deialdia.

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Aukera-berdintasuna sustatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, aire zabaleko gune publikoetan euskal konpainiek egiten dituzten arte eszenikoen ikuskizunen programetarako (teatroa, dantza eta zirkoa) diru-laguntzen deialdiak (Kale Antzerkia Bultzatuz programa) 75.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Hautatutako proiektu bakoitzari gehienez ere 15.000 euro emango zaizkio.

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman lezakeen beste edozein laguntza edo diru-laguntzarekin.

#### - **Oinarri arautzaileen oinarritzko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Proiektuak zer baldintza bete behar dituen (Gutxieneko teatro, dantza edota zirko ikuskizunak programatuko dira biztanle kopuruaren arabera ezarritako tarte bakoitzean: 20.000 biztanletik gora, 5 ikuskizun; 20.000-10.001 biztanle, 4 ikuskizun; 10.000-5.001 biztanle, 3 ikuskizun; 5.000-1.001 biztanle, 2 ikuskizun; 1.000 biztanle baino gutxiago, ikuskizun 1).
- Eskabideen izapidetze elektronikoa.
- Balioespen-irizpideak: aurkeztutako programazioa kontratatzearen kostua...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: ordainketa bakarra egingo da diru-laguntza justifikatu ostean.

#### - **Adierazleak:**

- Urtean kaleko ikuskizun eszenikoen zenbat kontratu lagundu diren.

### 4.1.5 Antzerki-produkziorako diru-laguntzak

#### - **Helburuak:**

- Bertako antzerki-ekoizpena sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Euskal antzerki-produkzioa sustatzea, merkatu berrietara irits dadin eta sormen-jarduera finantzatzeko aukera gehiago izan dezan.

- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

- **Sektoreak:** pertsona fisikoak eta juridiko pribatuak, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatu kide batean ezarrita daudenak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan ezarpen iraunkorra irekitzeko konpromisoa hartzen badute diru-laguntza emanez gero.

- **Epea:** urteko deialdia.

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Kultura-industriak bultzatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, antzerki-produkzioarako diru-laguntzen deialdiak 787.500 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntza, gehienez ere, proiektu bakoitzaren aurrekontuaren % 49 izango da, eta Administrazio Publikoetatik jasotako ekarpen ekonomikoen gehieneko guztizkoak ezin izango du gaintitu, inolaz ere, aurkeztutako proiektuaren kostuaren % 70.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

- **Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Deialdian zer laguntza modalitate aurreikusten diren (antzerki-konpainia sortu berriak, produkzioak, hitzartutako zirkuituetako produkzioak eta antzerki-konpainien bi urteko jardunak).
- Proiektuak zer baldintza bete behar dituen (deialdiaren ekitaldian zehar burutuko edo hasiko diren antzerki-produkzio profesionalak).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.

- Balioespen-irizpideak: Aurkeztutako proiektuaren kalitatea, interesa eta berrikuntza; bideragarritasun ekonomikoa, euskararen erabilera, entitate eskatzailearen ibilbidea, enpresaren antolaketa-egitura...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, emandako diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; bigarrenean ehuneko berrogei, hurrengo ekitaldian betiere lehenengo zatian jasotako zenbatekoari dagozkion gastuak justifikatu ostean. Gainerako ehuneko 10a diru-laguntza justifikatu ostean ordainduko da.

**- Adierazleak:**

- Urtean zenbat antzerki-produkzio berri sortu diren.

#### 4.1.6 Dantza sustatzeko diru-laguntzak

**- Helburuak:**

- Bertako dantza-lanen ekoizpena sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Euskal dantzako ekoizpenak sustatzea, merkatu berrietara irits dadin eta sormen-jarduera finantzatzeko aukera gehiago izan dezan.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

**- Sektoreak:** Sozietate-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten edo Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta dauden pertsona fisikoak edo juridiko-pribatuak.

**- Epea:** urteko deialdia

**- Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Kultura-industriak bultzatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, dantza sustatzeko diru-laguntzen deialdik 400.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio,

deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntza hauek –koreografia-sorkuntzaren eta dantza-konpainiak sendotzearen modalitateak izan ezik– bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

**- Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Deialdian zer laguntza modalitate aurreikusten diren (koreografia-sorkuntza, dantza-konpainiak sendotzea, dantza-lanen ekoizpena, eta dantza-profesionalentzako etengabeko prestakuntza eta laguntza).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: Aurkeztutako proiektuaren kalitatea, interesa, bideragarritasun ekonomikoa, eskatzailearen ibilbidea, prestakuntza-historiala, emakumeen parte-hartzea...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, emandako diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; eta bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Urtean zenbat dantza-proiekturi eman zaion babesak.

**4.1.7 SAREA Dantza Zirkuituan parte hartzen duten dantza-konpainientzako diru-laguntzak**

**- Helburuak:**

- Herritar guztiek kultura eskura izan dezaten ahalbidetzea, gizarte-maila guztietan kultura-ohiturak bultzatuta.
- Bertako dantza-lanen ekoizpena sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Dantza-jarduera profesionalak sustatzea, dantza-ekoizpenean biltzen diren prozesu guztietarako diru-laguntzak emanez.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globalean presentzia izateko bidetzat hartuta.

- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

- **Sektoreak:** Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Dantza Zirkuituan sartutako SAREako antzokietako programazioetan ikuskizunen bat ematen duten dantza-konpainiak.

- **Epea:** urteko deialdia.

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Aukera-berdintasuna sustatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, SAREA Dantza Zirkuituan parte hartzen duten dantza-konpainientzako diru-laguntzen deialdiak 140.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

- **Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Proiektuak zer baldintza bete behar dituen (SAREA Dantza Zirkuituan sartzen diren antzokietako baten edo batzuen programazioan parte hartzea).
- Eskabideen izapidetze elektronikoa.
- Kuantifikatzeko irizpideak: EAEko konpainiak: gehienez ere kaxetaren % 55, eta emanaldi bakoitzeko gehienez ere 2.500 €; EAEtik kanpoko konpainiak: gehienez ere kaxetaren % 40, dantza-zirkuituan sartutako emanaldien kopuruaren arabera eta emanaldi bakoitzeko gehienez ere 3.000 €.
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: Bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, diru-laguntzaren ehuneko hirurogeita hamabost ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro

ostean; eta bigarrean gainerako ehuneko hogeita bosta, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Urtean zenbat dantza-emanaldira eman zaion babesari.

**4.1.8 Literatura-argitalpenetarako diru-laguntzak**

**- Helburuak:**

- Bertako literatura-argitalpenak sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Euskal literatura-argitalpenak sustatzea, merkatu berrietara irits daitezen eta sormen-jarduera finantzatzeko aukera gehiago izan dezaten.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globalean presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

**- Sektoreak:** argitaletxeak; argitaletxetzat hartuko dira bakarrik, deialdiaren aurreko bi urteetan gutxienez hiru egileren bost liburu argitaratu dituzten merkataritza-erakunde pribatuak edo pertsona fisikoak.

**- Epea:** urteko deialdia

**- Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Kultura-industriak bultzatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, literatura-argitalpenetarako diru-laguntzen deialdiak 626.800 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, laguntzaren xede den edizio-planaren argitalpen-kostuaren % 70 izan daiteke.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren Erakunde Administrazioak ez diren beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin emandako beste

edozein diru-laguntzarekin, baldin eta kostu-prezioaren % 50 baino txikiagoak badira eta betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

**- Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Deialdian zer laguntza modalitate aurreikusten diren (euskarazko eta gaztelaniazko literatura-argitalpenak).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: Edizio-planearan sartutako lanen kultura-arloko interesa, eskaera egin duen argitaletxearen katalogoa eta ibilbidea, proposatzen den edizio-planaren ezaugarri teknikoak eta aurrekontuaren egokitasuna...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, emandako diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; eta bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Urtean paperezko liburuen zenbat edizio-proiekturi eman zaion babesa.
- Urtean liburu digitalen zenbat edizio-proiekturi eman zaion babesa.

**4.1.9 Euskadi literatura-sariak**

**- Helburuak:**

- Saritutako lanak zabaltzea eta egileak eurak eta egin dituzten lanak ezagutaraztea.
- Bertako literatura-argitalpenak sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Euskal literatura-argitalpenak sustatzea, merkatu berrietara irits daitezen eta sormen-jarduera finantzatzeko aukera gehiago izan dezaten.

**- Sektoreak:** Idatzi, itzuli edo ilustratutako liburuen egileak.

**- Epea:** urteko deialdia

**- Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Sariak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko (*"Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak"*) 4513. programaren (*"Kultura sustatzea"*) 32. zerbitzuaren (*"Kultura Sustatzeko Zuzendaritza"*) kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita *"euskar sorkuntza-sarea indartzea"* helburua.



2016ko ekitaldirako, Euskadi Literatura Sarien deialdiak 74.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako sariak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Euskadi literatura-sariak 10.000 euro gordin izango ditu modalitate bakoitzerako, eta diru-kopuru hori saritutako lanen egileei emango zaie.

**- Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Proiektuek zer baldintza bete behar dituzten (argitaratzeko unean bizirik dauden egileek idatzi, itzuli edo ilustratutako lanak. Hala ere, kasuan kasuko modalitatean sari hau azken hiru deialdietako batean jaso duten idazle, itzultzaile edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira).
- Balioespen-irizpideak: Lanen kalitate literarioa, originaltasuna, literatura-hizkuntzaren egokitasuna, erregistroaren egokitasuna, jatorrizkoaren izpiritua bereganatzea, ilustrazioen kalitatea...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: Saria ematen duen Agindua hartutakoan, gehienez hiru hilabeteko epean sariaren ordainketa egingo da. Aurretik saridunek onartu egin beharko dute saria.

**- Adierazleak:**

- Urtean zenbat Euskadi literatura-sari eman diren.
- Euskadi literatura-sarietan zenbat hautagai aurkeztu diren urtean.

**4.1.10 Ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko diru-laguntzak**

**- Helburuak:**

- Bertako ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Euskal ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzea, merkatu berrietara irits dadin eta sormen-jarduera finantzatzeko aukera gehiago izan dezan.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoa izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko

betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

- **Sektoreak:** Zinematografia eta Ikus-entzunezko Enpresak.

- **Epea:** urteko deialdia

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren VII. kapituluko ("*Kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Kultura-industriak bultzatzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko diru-laguntzen deialdiak 2.000.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Administrazio Publikoetatik jasotako ekarpen ekonomikoen gehieneko guztizkoak ezin izango du gainditu, inolaz ere, aurkeztutako proiektuaren kostuaren % 50 (% 90, film laburren modalitatean).

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

- **Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Deialdian zer laguntza modalitate aurreikusten diren (Proiektuen garapenerako laguntzak, eta ikus-entzunezko obren produkzio modalitate hauei zuzendutako laguntzak: zinemarako diren fikziozko film luzeak, zinemarako animaziozko film luzeak, sortze-dokumentalak, film laburrak).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: produkzio-proiektuaren balorazioa, proiektuaren finantzaketa, inplikaturako enpresa-baliabideak eta giza baliabideak, eskatzailearen ekonomia-kaudimena eta haren ibilbidea, filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz filmatzea, proiektuaren balio artistiko eta kulturala, garatu beharreko gidoiaren kalitatea eta bideragarritasuna, errealitate kultural, sozial edo linguistikoarekin duen lotura...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, eta modalitate guztiak aintzat hartuta, ordainketak honela egingo dira:

Proiektuen garapenerako laguntzak: bi zatitan ordainduko da; lehenengoan, diru-laguntzaren ehuneko hogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean, eta bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

Zinemarako diren fikziozko film luzeen eta dokumentalen produkziarako laguntzak: lau zatitan ordainduko da: lehenengoan, diru-laguntzaren ehuneko hamabost ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi ostean; bigarrenean, ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, hurrengo ekitaldian, proiektuaren dokumentazioa behin betiko jaso ostean; hirugarrenean, ehuneko hamabost ordainduko da, hurrengo ekitaldian, filmaketaren amaiera jakinarazi ostean; eta azkenekoan, ehuneko hogeitaz ordainduko da, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

Film laburren produkziarako laguntzak: hiru zatitan ordainduko da: lehenengoan, diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi ostean; bigarrenean, ehuneko hogeita hamar ordainduko da, hurrengo ekitaldian, filmaketa hasi dela jakinarazi ostean; eta azkenekoan ehuneko hogeitaz ordainduko da, ekitaldi berean, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Urtean ikus-entzunezko zenbat proiekturi eman zaion babesak.

**4.1.11 Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko diru-laguntzak**

**- Helburuak:**

- Ikerlana, artelanen ekoizpena, arte garaikidearen zabalkundea, eta euskal artisten sorkuntza-lana sustatzea, kulturaren sektorean profesionalen sarea indartzeko bidetzat hartuta.
- Arte plastiko eta ikusizkoen sektorean sorkuntza eta ekoizpena sustatzea, baita arte garaikidea zabaltzea ere, ekintzen bitartez.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoa izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

**- Sektoreak:** Helbidea edo sozietate-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten edo Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak, arte plastikoaren eta ikusizkoen eremuan jarduerak egiten dituztenak.

**- Epea:** urteko deialdia

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko (*"Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak"*) eta VII. kapituluko (*"Kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak"*) 4513. programaren (*"Kultura sustatzea"*) 32. zerbitzuaren (*"Kultura Sustatzeko Zuzendaritza"*) kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baitira *"Aukera-berdintasuna sustatzea"* eta *"euskal sorkuntza-sarea indartzea"* helburuak.

2016ko ekitaldirako, Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko diru-laguntzen deialdiak 416.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

- **Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Deialdian zer laguntza modalitate aurreikusten diren (sustapen-zabalkundea, argitalpenak eta sorkuntza-ekoizpena).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: Garatuko den jardueraren interesa eta kalitatea, ekimenak arte eta kultura aldetik duen garrantzia, ekimenak arte garaikidearen zabalkundean duen eragin kulturala eta sormen garaikidearekiko herritarren sentsibilizazioan duen ekarpena, eskatzailearen ibilbidea, emakumearen parte-hartze profesionalaren sustapena, proiektuan euskarak duen presentzia, ekimenak berrikuntzarako duen ekarpena sorkuntza artistikoaren arloan...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, diru-laguntzaren ehuneko hirurogeita hamabost ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; eta bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

- **Adierazleak:**

- Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan sorkuntzako eta ekoizpeneko zenbat proiekturi eman zaion babesaren urtean.
- Ikusizko arteen zabalkundeko zenbat proiekturi eman zaion babesaren urtean.

#### 4.1.12 Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sariak

**- Helburuak:**

- Saria jasotzen dutenen lanaren ordaina izatea, bai eta euskal arte garaikideari eta euskal kulturari egiten dioten ekarpena aitortzea ere.
- Sormenaren garapena bultzatzea eta euskal arte garaikidearen hedapena erraztea
- Saria jasotzen dutenek egindako lana sustatzea, euren obra ezagutarazita.

**- Sektoreak:** Arte plastiko eta ikusizkoen sektoreko sortzaileak eta agenteak.

**- Epea:** urteko deialdia.

**- Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Euskal sorkuntza-sarea indartzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sarien deialdiak 30.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Gure Artea sariak 15.000 euro gordin izango ditu modalitate bakoitzerako, eta diru-kopuru hori saritudunei emango zaie.

**- Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Saridunek zer baldintza bete behar dituzten (Pertsona fisikoen kasuan eta honako modalitate hauetan: a) ibilbidea aitortzeko saria eta b) sorkuntza-lana aitortzeko saria, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak izatea edo administrazio-egoitza EAEn izatea edo 10 urtetik gora eduki izana).
- Balioespen-irizpideak: Jardueraren edo lanaren kalitate artistikoa, ibilbide eta bilakaera artistikoa, euskal sorkuntza eta kultura garaikideari egiten dion ekarpena, nazioarteko proiektzioa, euskal artisten lana hedatzeko eta balioztatzeko ekimenak garatzea ...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: Saria ematen duen Agindua hartutakoan, gehienez hiru hilabeteko epean sariaren ordainketa egingo da. Aurretik saridunek onartu egin beharko dute saria.

**- Adierazleak:**

- Urtean zenbat Gure Artea sari eman diren.
- Gure Artea sarietan urtean zenbat hautagai aurkeztu diren.
- Saridunak eta haien lana urtean zenbat aldiz agertu diren Euskal Autonomia Erkidegoko prentsan.
- Gure Artea sariak banatzeko ekitaldian zenbat jende bertaratu den urtean.

#### **4.1.13 Sormen-jardunak bultzatzen dituzten espazio independenteentzako diru-laguntzak (Sorgune)**

##### **- Helburuak:**

- Gure herrian egun dugun sorkuntza-sareko adierazpen artistiko guztiak bultzatzea, dela hizkuntza berriei, dela talentu berriei babes emanda.
- Sormenaren katalizatzaile izango diren espazioen garapena bultzatzea, diziplinen arteko elkartrukea, elkarrekintza eta arte-adierazpenen arteko bat-egiteak sustatuta.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

- **Sektoreak:** Helbidea edo sozietate-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak, sormen-zentro baten kudeaketaren edo ustiapenaren titular direla.

- **Epea:** urteko deialdia.

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Euskal sorkuntza-sarea indartzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, sormen-jardunak bultzatzen dituzten espazio independenteentzako (Sorgune) diru-laguntzen deialdiak 840.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntza, gehienez ere, proiektu edo jarduera bakoitzaren aurrekontuaren % 70 izango da.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

**- Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Proiektuak zer baldintza bete behar dituen (Euskal Autonomia Erkidegoko higiezinak izatea; dagokien jarduera egiteko gaitasuna eta egokitasuna egiaztatzea, eta horretarako, gutxienez, sorkuntza, ekoizpen eta/edo erakusketarako gune egokiak izan beharko ditu, bai eta jarduerak egiteko behar diren baliabide teknikoak ere; eta eskatzailea izatea espazio horien kudeaketaren edo ustiapenaren titular).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: Sormen-gunearen kalitate eta berrikuntza gaitasuna, sormen-gunearen interes publikoa, inguru hurbilarekiko uztardura, proiektuaren diziplinarteko izaera eta informazio eta komunikazio teknologien erabilpena, nazioartekotzeko ekarpena, aurrekontuaren egokitasuna, tartean diren enpresa baliabideak eta proiektuaren kalitate-prezio erlazioa, euskararen erabilpena...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, hiru zatitan ordainduko da: lehenengoan, diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian betiere lehenengo zatian jasotako zenbatekoari dagozkion gastuak justifikatu ostean; eta hirugarrena hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Zenbat sormen-zentrori eman zaion babesa urtean.

**4.1.14 Bitartekotzako eta gizarte-berrikuntzako proiektuetarako diru-laguntzak (Bitartez)**

**- Helburuak:**

- Desberdinen arteko elkarrizketa, kolaborazioa, baterako sorkuntza edota hibridazioa eta talentua sustatzea, gure inguruko sortzeko gaitasuna ahal den gehiena garatzearen.

- Praktika kulturaletatik abiatuta berrikuntza kultural eta sozialeko estrategiak planteatzen dituzten ekimenak garatzea.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoa izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

- **Sektoreak:** Agindu hau argitaratzen denean helbidea edo sozietate-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak, nortasun juridiko propioa dutenak.

- **Epea:** urteko deialdia.

- **Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Euskal sorkuntza-sarea indartzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, bitartekotzako eta gizarte-berrikuntzako proiektuetarako diru-laguntzen (Bitartez) deialdiak 400.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntza, gehienez ere, proiektu edo jarduera bakoitzaren aurrekontuaren % 70 izango da, eta betiere gehienez 40.000 euro izango dira.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu berarekin eman litzakeen diru-laguntzekin, betiere horren ondorioz, gainfinantzaketarik sortzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

#### - **Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Proiektuak zer baldintza bete behar dituen (Kultura- edo sormen-sektore bati lotuta egon beharko dute –ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, literatura, musika, antzerkia, zirkua, magia, bertsolaritza...-).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.



- Balioespen-irizpideak: Berrikuntza kultural eta sozialeko proiektuaren kalitatea eta gaitasun berritzailea, berrikuntza sozial eta kulturalako proiektuaren interes publikoa, proiektuaren diziplinarteko izaera eta informazio eta komunikazio teknologien erabilera, aurrekontuaren egokitasuna, proiektuan erabilitako enpresa-baliabideak eta kalitate-prezio harremana aproposa izatea, euskararen erabilera...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, emandako diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; eta bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ostean.

**- Adierazleak:**

- Bitartekotzako eta gizarte-berrikuntzako zenbat proiekturi eman zaion babesa urtean.

**4.1.15 Kultura-sorkuntza bultzatzeko diru-laguntzak**

**- Helburuak:**

- Euskal kultura-ondarea aberastea arte eszenikoen, ikus-entzunezkoen eta musikaren arloetan.
- Gure herrian egun dugun sorkuntza-sareko adierazpen artistiko guztiak bultzatzea, dela hizkuntza berriei, dela talentu berriei babesa emanda.
- Kultura-eduki propioak produzituko dituen industria bermatzea, euskal kulturak nazioarteko merkatu globalean presentzia izateko bidetzat hartuta.
- Administrazio-izapideak erraztea; eskaerak modu elektronikoan izapidetzeko eta beste Administrazio batzuekin elkarregiteko aukera egongo da, batik bat, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztu egingo dira.

**- Sektoreak:** EAEn jaiotako sortzaileak edo bertan bizi direnak, gutxienez, duela urtebetetik. Sorreran euskaraz idatzitako proiektuak aurkeztu behar dituzten sortzaileek ez dute aurreko baldintza hori bete beharrik.

**- Epea:** urteko deialdia.

**- Kostuak eta finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak Plan honen indarraldian onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren IV. kapituluko ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") 4513. programaren ("*Kultura sustatzea*") 32. zerbitzuaren ("*Kultura Sustatzeko Zuzendaritza*") kargura finantzatuko dira, aurrekontu horien barruan sartzen baita "*Euskal sorkuntza-sarea indartzea*" helburua.

2016ko ekitaldirako, kultura-sorkuntza bultzatzeko diru-laguntzen deialdiak 290.000 euro izango ditu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak

benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie eta, hala badagokio, deialdiaren oinarriak onartu behar dira. Azken batean, diru-laguntzak ez dira emango aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen ez badira.

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede berberaz emandakoekin.

**- Oinarri arautzaileen oinarrizko ildoak:**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Deialdian zer laguntza modalitate aurreikusten diren (antzerki-testuak, zinemarako gidoiak, proiektu eta prototipo kulturalak diseinatzea).
- Eskabideak aurrez aurre edo elektronikoki izapidetu behar diren.
- Balioespen-irizpideak: Sormen-proiektuaren kalitatea, interesa eta berrikuntza-gaitasuna, sortzailearen ibilbide profesionala, proiektuak ekoizpen batean mamitzeko duen aukera, proiektuaren interes publikoa, euskararen erabilpena...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: urte anitzekoa denez, bi zatitan ordainduko da: lehenengoan, emandako diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da, esleipen-ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ostean; eta bigarrenean gainerako zenbatekoa, hurrengo ekitaldian, diru-laguntza jaso duen sorkuntza-lana helarazi ostean.

**- Adierazleak:**

- Zenbat musika-konposizio egin diren urtean.
- Zinemarako zenbat gidoi sortu diren urtean.
- Antzerkirako zenbat testu sortu diren urtean.
- Zenbat kultura-produktu berritailerik eman zaion babesan urtean.

**4.2. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, zuzenean emandako diru-laguntzak:**

Atal honetan sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean aipatzen direnak, baita interes publiko, sozial, ekonomiko, humanitario edo bestelakoak izanik deialdi publikoa egitea zailtzen duten arrazoiengatik salbuespen moduan emandakoak ere. Lehenengo kasuan, kultura sustatzearen arloan eskuduna den Saileko titularraren Agindu bidez gauzatuko da diru-laguntza, eta bigarren kasuan, Gobernu Kontseiluak eman beharko ditu.

**- Helburuak:**

Zuzeneko diru-laguntzak eman daitezke baldin eta proiektuak edo jarduerak ezin badu deialdietan parte hartu lehia libreko erregimenean, diruz lagundu beharreko ekintzaren berezitasunen bat dela medio; berezitasun hori honako atal hauetako batean bildutakoa izan daiteke, baina baita bestelakoa ere, ez baita zerrenda itxia:

- Gizartean errotuta daudelako, sektorearen barruan trakzio-jardueratzat balio handia dutelako eta nazioartean duten proiektioagatik, kulturaren ez ezik, merkataritzan, turismoan eta enpleguan ere eragina duten kultura-arloko ekitaldi eta erakundeen sustapena
- Kultura-eremuko sektore-elkarte adierazgarriei zuzendutako laguntzak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan Kultura sustatzea xede badute.

- **Epea:** Diru-laguntza emateko xedapenetan aurreikusiko da indarraldia.

- **Kostuak:** Zuzeneko diru-laguntzen guztizko zenbatekoa aurrekontuen legeetan esleitutakoaren araberakoa izango da, urteko aurreikuspenei jarraiki.

- **Finantzaketa-iturriak:** Diru-laguntzak IV. kapituluaren ("*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*") kargura finantzatuko dira.

Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezarri ahal izateko, aurrekontua esleitu behar zaie.

Beste finantzaketa-iturri batzuekin bateragarria izango da, dela kanpokoak – publiko nahiz pribatu–, dela onuradunen berezkoak –lehiaketaren edo beste jarduera batzuetan jardutearen ondoriozko diru-sarrerak–.

Dena den, finantzabide horiek guztiek batera ezin izango dute gainditu diruz laguntzen den jardueraren kostua. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, finantzaketa horretan laguntzeko.

## 5. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plan hau urtero eguneratuko da, 2017. eta 2018. urteetan. Eguneratze hori ekitaldi bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen egingo da, EAEko Aurrekontu Orokorren Legeetan xedatutakoa aintzat hartuta.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak kontrolatu eta ebaluatuko ditu Plan hau aplikatzearen ondoriozko emaitzak.

## 6. AURREKO PLAN ESTRATEGIKOEN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Ez dago aurreko plan estrategikorik

## 7. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA ETA ARGITARATZEA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Agindu bidez onartuko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak aldeztetik proposamena eginda, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren

egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 7.c) artikuluari jarraiki.

Era berean, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren 2015-2017 aldiko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Euskadi.net web-orrian argitaratuko da, eta ordenamendu juridikoan une oro aurreikusitako informazioari eta gardentasunari buruzko bestelako xedapen guztiak ere aplikatu behar zaizkio.

Cristina Uriarte Toledo

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA